

Berrikuntza

SISTEMAK

Berrikuntza pertsonetatik hasita

Gipuzkoako Foru Aldundiak bultzatutako BERRIGUNE proiektua sortuko da ETEetan berrikuntza indartze aldera, pertsonetan oinarritutako kudeaketa-ereduaren bitartez. Ikerketa-proiektu honetan, esperimentazioa landuko da enpresa-

multzo batean; hain zuzen ere, erreferentzia-eredu baten arabera, enpresak berritzeko duen gaitasuna ebaluatuko da, bai antolaketari bai pertsoneri dagokienez, hobetzeko planak diseinatzearren.



Euskadin berrikuntza dinamizatzea

TECNALIAK SPRIrekin batera parte hartzen du Eusko Jaurlaritzako Enpresa Lehiakortasuna eta Berrikuntza Sozialaren Planeko Berrikuntza-ardatza lantzen eta kudeatzen. Idazkaritza

teknikoak hiru jarduera-eremu ditu: Innova eta Innovanet Sarea, Behatoki Estrategiko Sektorialen Sarea eta Berrikuntzaren nazioartekotzea. Plan honetan biltzen dira Euskal Herriko

bigarren transformazio ekonomikoa deitzen denaren estrategiak eta helburuak.

Berrikuntza Eraikuntza sektorearentzat



Eraikal programak bizitegien eraikuntza sektoreko enpresetan kalitatea kudeatzeko sistemak ezartzea eta hobetzea sustatzeaz gain, iraunkortasuna eta berrikuntza bultzatzen ditu. Programa duela 10 urte sortu zen, eta, geroztik, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren ziurtapena lortzera bideratutako ekintzak bultzatu ditu.


TEKNOSKOPIA 2007

TECNALIA Hezkuntza eta Zientzia Ministerioarekin batera ari da “TECNOSKOPIA 07” azterketa egin eta hedatzen. Horren helburua da Energia, Industriaren diseinua/produktzioa, Garraioa eta Eraikuntzako programa nazionalen erabileremuen premiak, gabeziak eta mugak identifikatzea, aztertzea eta hedatzea. 2006. urtean egin dira aurreko eremuei dagozkien sektoreen egoera aztertzeko azterketak.

Berrikuntzako sistema sektorialak European



SYSTEMATIC proiektuan TECNALIAK parte hartzen du Europako beste 7 bazkiderekin batera. Proiektuaren asmoa da Berrikuntzen Politiken Europako arduradunei eta funtsezko aktoreei informazio koherentea eta osoa ematea honako hauen inguruan: berrikuntza-patroiak, errendimendurik eta EB-25eko dozena bat sektorek aurre egin beharreko erronkak. Metodologia baten garapena eta aplikazioa zuzentzen ditugu, berrikuntzako enpresa liderrak identifikatze eta hautatze aldera.



OPTI: Etorkizuna bistaratzen

Duela 10 urte sortu zen Prospektiba Teknologiko Industrialaren Behatokia (OPTI), eta TECNALIAK bertan parte hartzen du. TECNALIAren ardura da analisiak eta prospekzioak egitea Garraioaren, Materialen eta Nanoteknologiaren sektoreetan. 2006.

urtean aurkeztu zen “Hidrogenoa eta Erregai Pilak” gaiari buruzko azken azterketa (CIEMATEkin batera); halaber, “Nanoteknologiaren industria-aplikazioak Espainian, 2020. urtean” asmo handiko prospekzioa aurkeztu zen.

